

ERRENTERRIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren, eta 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo Udalak eskatuta, beti ere hirigintza antolamenduak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hirigintza antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, Errenteriako lurzoruaren eta ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Aldaketak udalerriko hirigintza antolaketan:

- **Errenteriako, Oiartzun eta Lezoko udalek onartutako mugaketa eta mugarriztatze akordioak** (2003.08.06 eta 2003.08.14ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak).
- **Errenteriako Hiri Antolaketako Plan Orokorra** (2004ko otsailaren 3an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak behin-betiko onartua).

ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Hirilur lurraren, 121, 201, 302, 303, 321, 322, 422, 501, 601, 604, 606, 607, 610, 611, 801, 802, 803, 807, 810 eta 851 zona katastralaren mugak aldatzen dira, 612, 613, 614 eta 615 zona katastral berriak sortzen dira, eta 212, 609 eta 809 zona katastralak deuseztatzen dira.

2.- Sortutako zonek honako balioak izango dituzte:

Zona Hirigintz. klasif (EK)Eraik Kos. (BEE)Balio Erag. (MP)Apark Moduloa.

612	HIRITARGAIA	510,86 €	490,73 €	13.823,28 €
613	HIRITARGAIA	510,86 €	490,73 €	13.823,28 €
614	HIRITARGAIA	510,86 €	490,73 €	13.823,28 €
615	HIRITARGAIA	510,86 €	490,73 €	13.823,28 €

3.- 612, 613, 614 eta 615 etxebizitzarako zonetan dauden kaleek edo kale tarteek X azpizona izango dute.

I. ERANSKINA

Hirilurraren mugatze planoak.

II. ERANSKINA

Zona katastralaren planoak.